

Iruñerriko hiri garraioaren zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantzako 6. artikulua eta VIII. Titulua aldatzeko proposamena

6. artikulua:

1.- Garraioan erabiltzekoak diren ibilgailuetara sartzea publikoa da eta betebeharrak bakarrik da aurretik tarifa ordaintzea, **9. artikuluan ezartzen denaren arabera**. Salbuespena dira 5 urtetik beherako haurrak, behar bezala lagunduta badaude. Ulertzen da behar bezala lagunduta daudela, gutxienez, pertsona heldu bat badago 4 hurreko.

VIII. TITULUA. GARRAIO TXARTELA

Lehen atala. Xedapen orokorrak

23. artikulua. Iruñerriko Mankomunitateak hala eskatzen duten erabiltzaileen esku jarriko du garraio txartel bat indarrean dauden tarifak ordaintzeko.

24. artikulua. Mankomunitatearen garraio txartela erabiltzaileei ematea **horretarako egokitutako** kargatzeko sarearen barnean dagoen edozein establezimenduren bidez egin ahal izanen da. Txartela emateko baldintza da lehenbiziko karga bat egin behar izatea **eta bai dagokion tasa ordaintzea ere, halakorik badago.**

25. artikulua. Tarifak garraio txartelaren bidez ordaintzeko, aldeztu aurretik ordaindu beharko dira. Ordainketa hori txartela eskuratu den guneetan bertan egin beharko da.

26. artikulua. Garraiorako txartel mota hauek egongo dira:

1.- Garraiorako txartel arrunta edo izengabea: txartelaren titularrik gabea, eta, beraz, hainbat lagunek erabil dezakete txartel bera.

2.- Garraiorako txartel pertsonalizatua, gizarte profilekoa: txartelak titular bat izango du, eta haren datuak eta argazkia txartelean agertuko dira. Titularrak berak eta bakarrik erabili beharrekoa izango da, garraioa gizarte tarifetako baten onuradun den aldetik.

3.- Garraiorako txartel pertsonalizatua, orokorra: txartelak titular bat izango du, eta haren datuak eta argazkia txartelean agertuko dira. Titularrak berak eta bakarrik erabili beharrekoa izango da, garraioa aldi baterako titulu orokorrak ordaintzeko.

27. 26. artikulua. Mankomunitateak hitzarmenak ezarri ahal izanen ditu beste entitate edo erakunde batzuekin, beste txartel batzuk Mankomunitatearen garraio txartelak dituen helburuetarako ere erabili ahal izan daitezten.

28. artikulua. Ezarrita dauden tarifak garraiorako txartelaren bidez ordaintzeko, autobusetan eta gidariaren ondoan dauden txarteletarako makinak erabiliko dira. Autobus bakoitzean, txarteletarako bi makina daude: aurrekoa edo saltzekoa, eta atzekoa edo baliozkotzekoa. Garraiorako txartel pertsonalizatuak aurreko edo saltzeko makinan bakarrik erabili ahal izango dira, gidariari erakutsita, hark ikus dezan ongi erabiltzen ari direla. Garraiorako txartel izengabeak, berriz, bi makinetan erabili ahal izango dira.

29. 28. artikulua. Mankomunitateak jaulkitako garraio txartelek, oro har, 5 urteko indarraldia dute iraungi arte. Horiek igarota, soilik erabili ahal izanen dira autobusetan balidatzeko eta horrekin eskuratutako eskubideak agortu arte. Txartelaren iraungitze-data luzatu ahal izanen da luzapen horrek zerbitzuaren kudeaketari onura ekartzen badiu. **Gizarte profileko garraiorako txartel pertsonalizatuaren indarraldia, txartel horien onuradun izateko baldintzei lotua, Gizarte tarifak arautzeko ordenantzan ezarri eta zehaztuko da.**

30. ~~29.~~ artikulua. Mankomunitateak hala eskatzen duten erabiltzaileen esku jarriko ditu bai kargatzeko sarearen barnean dauden establezimenduen kokapena, bai une bakoitzean horren erabilera arautuko duten arauak eta baldintza espezifikoak. Halaber, txartelaren beraren kudeaketari lotutako prozedura eta operazio moldea.

Bigarren atala. Tarifa motak

31. artikulua. Garraiorako tarifak bi motatakoak izango dira:

1.- Diru-zorro tituluak: aurretik ordaintzea eskatzen dutenak; hartara, diru saldo bat kargatzen da txartelean eta bidaiak bakoitzerako ezarrita dagoen prezioan bidaiak egin daitezke, saldo hori ahitu arte. Tarifa hauek ordaintzeko garraiorako txartelak erabiltzea titulu honetako hirugarren atalean dago araututa. Tarifa hauek, era berean, bi motatakoak izan daitezke:

- a) Tarifa orokorra: prezio orokor batekin, eta horretan ez dago inolako baldintzarik erabiltzeko.
- b) Tarifa soziala: prezio hobaridun batekin, gizarte tarifen onuradunentzat.

2.- Aldi baterako tituluak: ezarrita dagoen prezioan eskuratzeak eskubidea ematen du denbora aldi jakin eta mugatu batean bidaiak kopuru mugagabea egiteko zerbitzuan. Titulu hauek garraiorako txartel pertsonalizatuetan baino ezin dira kargatu, eta tarifa hauek ordaintzeko erabiltzea titulu honetako laugarren atalean dago araututa. Tarifa hauek ere bi motatakoak izan daitezke:

- a) Tarifa orokorra: prezio orokor batekin, eta horretan ez dago inolako baldintzarik erosteko.
- b) Tarifa soziala: prezio hobaridun batekin, zenbait gizarte tarifaren onuradunentzat.

32. artikulua. Tarifa sozial hauen onuradun izateko baldintzak, bai diru-zorro tituluena, bai aldi baterakoena, Gizarte tarifak arautzeko ordenantzan daude ezarrita. Onuradun horien akreditazioa gizarte profileko garraiorako txartelaren bidez egiten da.

33. ~~30.~~ artikulua:

1.- Titularra ez den pertsona batek profil sozialeko garraio txartela iruzurrez erabiltzeak berekin ekarriko du ikuskariak edo enpresa kontzesioduneko langileak txartel hori kentzea eta erabiltzaileari kentze horren sinestamendu bat ematea. Sinestamendu horretan, hain zuzen, kentzeko arrazoia adieraziko da.

2.- Tarifa sozialeko txartel horren titularrak Iruñerriko Mankomunitatearen Herritarren Arretarako Bulegora joan beharko du bila. Hori guztia alde batera utzirik titularrak izan dezakeen administrazio erantzukizuna, Iruñerriko hiri garraio publikoaren tarifa sozialak arautzen dituen ordenantzan ezarrita dagoenarekin bat.

Hirugarren atala. Garraiorako txartelen baldintzak diru-zorro tituluak ordaintzeko

34. artikulua. Tarifak garraiorako txartel bidez ordaintzeak eskatuko du aurretik ordaintzea: garraiorako txartelean diru saldo bat kargatuko da –gehienez ere 30 euro izango dira– eta horrek aukera emango du bidaiak bakoitzerako ezarrita dagoen prezioan bidaiak egiteko, saldo hori ahitu arte.

35. artikulua. Garraiorako txartelek aukera emango dute zerbitzuaren tarifak ordaintzeko titularrarekin doazen beste pertsona batzuei diru-zorro tituluena bidez, multibaldazio bat eginda, lehen aldiz ordaindu denetik aurrera 5 minutuko denbora tartearen barnean. Gizarte profileko garraiorako txartel bat erabiltzen bada, titularrarekin doazen pertsonen aplikatuko zaien prezioa tarifa orokorrarena izango da.

36. artikulua. Garraiorako txartela erabiltzen duten erabiltzaileei autobusez aldatzeagatiko tarifa aplikatuko zaie, baldintza hauek betetzen badira:

- a) Lehen aldiz erabili denetik aurrera 45 minutu baino gutxiago igaro badira eta lehen bidaiari erabili den linea ez den beste bat erabili nahi bada. Denbora tarte horretan gehienez ere bi autobus-aldatze egin ahal izango dira aipatu diren baldintzetan.
- b) Multibaldazioa egin bada, titularrarekin doazen pertsonen bidaietako autobus-aldatze baldintzak multibaldazio eragiketa eragin duen lehen ordaintzerako baldintza berberak izango dira.
- c) Autobusez aldatzeagatiko tarifak lehen ordaintzean aplikatu den tarifak baino prezio handiagoa badu, prezio baxuago hori aplikatuko da autobusez aldatzean.

37. artikulua. Garraiorako txartelean dagoen saldoa kontsultatu ahal izango da, edo autobusetan dauden txarteletarako makinetan, edo kargatzeko sareko saltokietan.

38. ~~27.~~ artikulua. Tarifak aldeztu aurretik ordaintzeagatik eskuratutako eskubideek automatikoki galduko dute euren balioa ondorengo kasu hauetan:

1.- Urtebete igarotzen bada txartel horren erabilera bat ere detektatu gabe –txartelaren kargan edo balidazioan–.

2.- Txartelaren galera, lapurreta edo hondatzea gertatzen bada, Mankomunitateari leporatu ahal izan gabe.

39. artikulua. Komenigarri jotzen duenean, baliozko izateari utzi dioten eskubide hauek berreskuratzeko prozedura bat egin ahal izango du Mankomunitateak.

Laugarren atala. Garraiorako txartelen baldintzak aldi baterako tituluak ordaintzeko

40. artikulua. Aldi baterako titulu bat edo abonua bat eskuratzeko eskubidea ematen du 30 egun naturalean (egun jarraiak) zerbitzuan bidaia kopuru mugagabea egiteko. Epe hori zenbatuko da autobusean lehen aldiz ordaintzen denetik, behin erosi denean aldi baterako titulu kargatzeko sarean. Gainera, lehen aldiz ordaintze hori egin beharko da, aldi baterako titulu erosi den egunetik aurrera, 7 egun natural igaro baino lehen. Gainerakoan, ordaintzeko epea zenbatuko da erosi zen egunetik 7 egunetara.

41. artikulua. Aldi baterako titulu duen garraiorako txartel batean (erabiltzen ari den txartela) erreserbarako beste bat erosi ahal izango da, baldintza beretan, erabiltzen ari den abonua baliozko azken 7 egun naturalen barnean. Erabiltzen ari den abonua epea amaitu denean, erreserbarako abonua baliozkotasun epea zenbatuko da lehen ordaintzea egiten den unetik aurrera, edo, halakorik ez badago, lehenago erabiltzen ari zen abonua epea amaitu zenetik 7 egun naturaletara.

42. artikulua. Aldi baterako tituluen baliozkotasun epea kontsultatu ahal izango da, edo autobusetan dauden txarteletarako makinetan, edo kargatzeko sareko saltokietan.

43. artikulua. Aldi baterako tituluak ordaintzeko garraiorako txartel pertsonalizatuek aukera emango dute diru-zorro tituluak ordaintzeko, eta erabiliko dira aldi baterako titulu baliozkorik ez dutenean.

44. artikulua. Aldi baterako titulu bat duten garraiorako txartel pertsonalizatuek aukera emango dute zerbitzuaren tarifak ordaintzeko titularrarekin doazen beste pertsona batzuei diru-zorro tituluen bidez, multibalidazio bat eginda, lehen aldiz ordaindu denetik aurrera 5 minutuko denbora tartearen barnean. Kasu horretan, titularrarekin doazen pertsonen aplikatuko zaien prezioa diru-zorro tituluen tarifa orokorra izango da.

45. artikulua. Aldi baterako titulu baterako prezio berria indarrean sartzen denean, prezio zaharrean eskuratutako abonuek gehienez ere 15 egun natural izango dituzte, indarrean sartze hori egin den egunetik aurrera zenbatuta, aktibatze eta baliozkotasun epea hasteko. Epe hori igaro eta gero, tarifa zaharrak ordainduta eskuratutako eskubideek automatikoki utziko diote baliozko izateari.